

# INGURUNE SEGURUAK ETA BABESLEAK ERAIKITZEKO **ADIERAZLEAK**

## 1. MAILA

### INGURUNE FISIKOAK

- Kokapena: herrian edo auzoan integratua, segurua eta hurbila.
- Azpiegitura segurua eta irisgarria, oztoporik gabea.
- Beharrezko mantentze-lanak eta garbitasuna.
- Segurtasuna eta suteen prebentzioa.
- Espazioen dimentsio eta banaketa egokia: mugimendurako tokia, txoko-ezkutuak...
- Haur eta nerabeen beharrei egokitutako espazioa.
- Material seguruak eta babesleak.

## 2. MAILA

### INGURUNE EMOZIONALA

- Segurtasun emozionala lortzeko, berotasunez hornitutako ingurune fisikoak: tenperatura, forma eta kolore egokiak, jolasa ahalbidetzen duten materialak.
- Espazio zabalak eta irekiak, naturarekiko kontaktua : airea, eguzkia eta mugimendua.
- Pertsonalizatutako espazioak.
- Bereizitako espazioak: musikarako, jateko, entzuteko eta laguntzeko.

## 3. MAILA

### HELDU KONTZIENTEAK

- Afektibitate kontzientea, hezkuntza-taldearen gaitasun profesional gisa.
- Zergatik eta zertarako egiten dugun jakin (norbere buruarekiko kontzientzia, artatzen ditugun pertsonen beharren eta inguruneen kontzientzia).
- Afektibitatea haur eta nerabe guztientzat.
- Prozesuen hasierak eta itxierak zaindu: egunaren (jarduera, ikasturtea eta abar) hasiera eta amaiera.
- Hezkuntza emozionala da hezkuntza-proiektuaren ardatz nagusia.
- Indarkeria-mota guztiak ezabatu.
- Arrisku- edo babesgabetasun-egoerak detektatzeko eta bideratzeko jarraibide argiak eta eraginkorrak.
- Talde-lana eta sare-lana.
- Hezkuntza-taldeari laguntzeko eta prestatzeko espazioak.

## 4. MAILA

### PROTAGONISMOA

- Haurrari eta nerabeari aktiboki entzun eta lagundu.
- Haurraren eta nerabearen parte-hartzea, erabateko autonomia- eta garapen-prozesuan funtsezko tresna gisa.
- Haurraren eta nerabearen protagonismoa bere bizi-esperientzietan: jolas librea, sorkuntza artistikoa eta adierazpen emozionala funtsezko elementu gisa.